



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 16a

11. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, toki kontratazioari dagokionez. Akats zuzenketa Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitako irizpean (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, euskaldun sentitzen diren nafarrek sentimendu hori aitortua izateko eta adierazteko modua izan dezaten hartuko dituen neurriei buruzkoa, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak egina (4. or.).

—Jabeldura, Gendulainen Nafarroako bigarren hiri handiena sortzeko hirigintza jarduketari buruz gobernuak daraman politikari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (5. or.).

—Jabeldura, hezkuntza sistemaren behar adinako finantzaketa, ikasleen banaketa orekatua, ikastetxeen autonomia eta beste bermatzeko Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Aralar eta Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeek egina (5. or.).

—Jabeldura, trenbide azpiegituren arloan foru gobernuak nazioko gobernuarekin aurrera eraman duen politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza eta Auzitegi Nazionala premiatzen dira presoek eskubideen aurkako neurri guztien aplikazioa, bai eta dispersio politikaren eta espetxe zigoren luzapenaren aplikazioa ere geraraz ditzaten. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dekretu berri bat egin dezan eta bertan zalarik gabeko moduan jaso dezan hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasle guztiak modu orekatuan banatuko direla funts publikoekin mantentzen diren ikastetxeetan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahal bezain azkar has ditzan behar diren izapideak eta zuzemenak lurzoruak aprobetxamenduen truke erostearen ordezkiduraren truke erosteko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da moratoria bat ezar dezan Gendulaingo lurzoruak antolatzeko tresnak izapidetzean. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Gendulain dela-eta herritarrek zenbait zerbitzu eduki ditzaten Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei edo dauzkan aurreikuspenei buruzkoa eta aurreikusi den plangintzari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egina (13. or.).

—Galdera, Jofemar, S.A. enpresaren instalazioetarako sarbideak, NA-128, Marcilla-Peralta errepidean, hobetzeko lanak egitea onartu behar ote den jakiteko, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egina (14. or.).

—Galdera, gobernuak aurkezturiko Gendulaingo hirigintza-garapena gauzatzen bada, Iruña-Logroño autobidea desbideratzeak izanen duen kostu ekonomikoari buruz eta kostu hori nork ordaindu behar duen jakiteko, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egina (14. or.).

—Galdera, txertoen egutegi ofizialean barizelaren aurkako txertoa sartzea dela-eta izandako irizpide aldaketari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (15. or.).

—Galdera, jakiteko gobernuak asmoa duen N-121-A errepidea hobetzeko lanek trafikoaren gainean izanen dituzten eraginak arintzeko alternatibek plana egiteko, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (16. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa, 2007ko urtarrilaren 1ekoa. Akats zuzenketa (17. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamendu Erregelamenduko 9.b) artikularen aldaketa (18. or.).

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa hautatzeko arauak (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, toki kontratazioari dagokionez.**

**AKATS ZUZENKETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENEAN**

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea toki kontratazioari dagokionez aldatzeko Foru Lege proiektuaren irizpenaren gaztelaniazko testuan akatsak antzeman dira. Irizpena 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, zuzenketa hauek egin behar dira:

3. artikuluan, 228.1 artikulua, 7. orrialdea, lerrokadaren amaieran, "IVA excluido"ren ondoren. Honakoa gehituko da:

*"En los demás casos, el pliego de cláusulas administrativas podrá establecer una Mesa de Contratación."*

3. artikuluan, 232.1 artikulua, 9. orrialdea, honakoa dioen tokian:

*"... ante el órgano con plena autonomía funcional que se cree..."*

Honakoa behar du:

*"... ante el órgano con independencia en su función resolutive y no sometido a instrucciones jerárquicas que se cree..."*

Iruñean, 2007ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, euskaldun sentitzen diren nafarrek sentimendu hori aitortua izateko eta adierazteko modua izan dezaten hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak euskaldun sentitzen diren nafarrek sentimendu hori aitortua izateko eta adierazteko modua izan dezaten hartuko dituen neurriei buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko ordeko eledun Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroan, hamarka mila herritar sentitzen gara euskal herritar, hain zuzen ere nafar izateagatik. Nortasun-sentimendu zilegi eta historikoa da, eta tradizio luzea du gure erkidegoan, zeinaren borondatea baita gainerako euskal lurraldeekin erakunde-harreman egonkorra eraikitzea eta nortasun-sentimendu hori gure kaleetako egunerokotasunean islatua ikusteko aukera izatea. Betera, gainerako nortasun-sentimenduekiko bizikidetasun harmoniatsuan, kohesioa eta gizarte-integrazioa nagusi izanen dituen Nafarroa baterantzko aurrerapausoak ematen, Nafarroa moderno, ireki, anitz eta aberats baterantz.

Alabaina, nortasun-sentimendu hori adieraztea zeharo debekatuta dago gaur egungo Nafarroako Gobernuaren erantzukizun-esparru ugaritan, eta horren adibiderik argiena hauxe da: euskal atxiki-

mendua duten biztanleak gehiengo argia direneko herrietan, biztanle horiek Nafarroako Gobernuak aurkezturiko salaketak pairatu behar izaten dituzte, herritar gehienak identifikatuta sentiarazten dituen ikurra jarri izateagatik; edo, adibidez, arlo guztietan zapaltzen dira nortasun-sentimendu hori mapa, testuliburu, piktograma eta abarretan guztatuta agertzen duten adierazpide guztiak.

Baina, hori guztia gorabehera, Euskal Herriak badirau, eta irauten segituko du, eta herritar askok nabaritzen dugu "errealitate kultural" horren zati garela sentitzeko premia, gaur egungo Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunak berriki egin zioten elkarrizketa batean aitortu zuen errealitate kultural horrena. Horregatik, ezin dugu ulertu Nafarroako Gobernuaren jarrera, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ezein lankidetzaren aurkako, are estatuaren aurrean sortzen diren autogobernu-aferei dagokienez, zeinetan, inolako zalantzarik gabe, ekintza koordinatu eta planifikatu batek emaitza hobekak ekarriko lituzkeen nafar guztientzat.

Ezin dugu ulertu nola herritarrei sinestarazi nahi zaien ezen Nafarroa defendatzeko modu bakarra gaur egun gobernuan dauden UPN eta CDN alderdien ideologia defendatzea dela.

Hala ere, oraindik ere garaiz gabiltza, eta horregatik parlamentu-talde honek jabeldura hau aurkeztu dio Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari:

Zer-nolako neurriak hartzeko asmoa daukazu, nafar izanik eta, hain zuzen ere horrexegatik, euskal herritar sentitzen garen hamarka mila herritarrok sentimendu hori ezagutu eta adierazteko bideak izan ditzagun?

Iruñean, 2007ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Jabeldura, Gendulainen Nafarroako bigarren hiri handiena sortzeko hirigintza jarduketari buruz gobernuak daraman politikari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Gendulainen Nafarroako bigarren hiri handiena sortzeko hirigintza jarduketari buruz gobernuak daraman politikari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, Gendulainen Nafarroako bigarren hiri handiena sortzeko hirigintza jarduketa dela-eta gobernuak duen politikari buruzko jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea eskatzen du.

Gendulaingo antolakuntzarako ideien lehiaketaren ebazpenak interesa sortu du udaletan, hedabideetan eta, oro har, gizartean.

Halaber, Lurzoruaren Mahaiko udalekin orain arte zeuden harremanen haustura eragin du, eta horrez gain, gobernuak zenbait kontseilariren artean ageriko desadostasunak sortzea.

Udalez gaindiko plan sektoriala izapidetzen hasteari buruzko erabakia posizio estrategiko bat da Iruñerriarentzat, bai eta, oro har, Nafarroarentzat ere.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari ezinbestekoa iruditu zaio Nafarroako Gobernuak lehendakariari zuzenduriko jabeldura hau aurkeztea, Gendulainen Nafarroako bigarren hiririk handiena sortzeko hirigintza-jarduerari buruz gobernuak zer politika eta jarrera duen azal dezan, bai eta Iruñerriko hirigintza garapenei eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-orekari buruz ere.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Eleduna: Fernando M.<sup>a</sup> Puras Gil

## **Jabeldura, hezkuntza sistemaren behar adinako finantzaketa, ikasleen banaketa orekatua, ikastetxeen autonomia eta beste bermatzeko Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

### *ARALAR ETA EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEEK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Aralar eta Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeen hezkuntza sistemaren behar adinako finantzaketa, ikasleen banaketa orekatua, ikastetxeen autonomia eta beste bermatzeko Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **JABELDURAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak eta Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu diote Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Jabelduraren testua:

Nafarroako gizartea kezkatu ikusten ari da legegintzaldiaren hasieratik hezkuntzari buruz abian dagoen eztabaida. Ikastetxe publikoak gainezka egotea, etorkinen etorrera, haur guztiak

hezkuntza-sisteman sartzea, ekipamendurik eza, ikastetxeak ez berritu eta ez eraikitzea, eskola-jazarpena, hezkuntza-guneetan droga egotea, eskolatzeko-batzordeen jarduera inefizientea, 0-3 urteko tartea, non milaka ikasle kalean baitaude ikastetxeetan sartzea lortu ezinik...

Gertakari globala da, baina Nafarroan azken hamarkada honetan zehar bereziki gaiztotu dena:

– Botere publikoek hezkuntzari ematen dioten garrantzi urria.

– Finantzaketa eskasa, azken hamarkada honetan gaitz endemiko bihurtua.

– Gurasoek hizkuntza eredia errealitatean askatasunez hautatzeko aukerarik eza.

– Irakasleek betetako eginkizunari buruz dagoen iritzi eskasa eta ikasgelan gauzatzen duten jarduerarako ematen zaaien laguntza urria.

– Ikastetxeek dauzkaten baliabide mugatuak eta haien kudeaketa-gaitasun murriztua.

– Ikasleen heterogeneotasunari aurre egiteko estrategiarik eza.

– Fenomeno berriak, etorkinen seme-alabak eskolatzea kasu.

Nafarroako Gobernuak hezkuntzaren arloko inbertsioa estrategikotzat jotzeari utzi dio, eta bitartean, beste arlo batzuetako azpiegituretako inbertsioa lehenetsi du, hala nola errepideak, ureztaketakoak, industrialak eta abar. Nafarroako hezkuntza sistemak zeukan posizio bikainaren ondoren, egoera kezagarri bat sortu da, zeinean hezkuntza itunduaren aldeko apustuak arriskuan

jarri baitu Nafarroako sektore behartsuenen aukera-berdintasuna.

Munduko aditu guztiek adierazi dute hezkuntzan eginiko inbertsioa funtsezkoa dela erkidegoen etorkizun kolektiborako, eta ez soilik gizabanakoak etorkizunean arrakastatsu izateko.

Aurretik adierazitako guztiagatik, parlamentutalde hauek gobernuari jabeldura aurkeztu diote, Hezkuntza Departamentuak eta gobernuak honakoak bermatzeko zer neurri hartzeko asmoa daukaten jakiteko:

1.- Nafarroako hezkuntza-sistamarako behar adinako finantzaketa, Barne Produktu Gordinaren % 6ra iristeko.

2.- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, immigraziotik datozenak, Nafarroako ikastetxe guztietan ekitatez banatzea, matrikulazioaren plangintza orekatu baten emaitza gisa.

3.- Ikastetxeen egiazko autonomia, zeinak bere hezkuntza proiektua garatu ahal izan dezan, geroago ingurune sozial zehatzean eskaintzeko.

4.- Nafarroako irakaskuntzako profesionalek eskuzabaltasunez betetzen duten irakaskuntzalanaren aintzatespena.

5.- Gurasoek hizkuntza eredia askatasunez hautatu ahal izatea foru erkidegoko lurralde osoan.

Iruñean, 2007ko otsailaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

## **Jabeldura, trenbide azpiegituren arloan foru gobernuak nazioko gobernuarekin aurrera eraman duen politika orokorrari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak trenbide azpiegituren arloan foru gobernuak nazioko gobernuarekin aurrera eraman duen politika orokorrari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erre-

gelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, foru gobernua nazioko gobernuarekin trenbide-azpiegituren alorrean gauzaturiko politika orokorrari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena:

Abiadura handiko trena aurki Nafarroatik pasako da; afera hori erabateko gaurkotasuneko da, eta azken urteotan areagotu egin du Nafarroak bere inguru geografikoarekin, estatuko sare osoarekin eta Europarekin dituen trenbide-loturak hobetzeko premiari buruzko eskaera eta kezka soziala. XIX. mendeaz geroztik emandako zerbitzu kaskarraren ondoriozko ondoreari uztartu zaio abiadura handiko teknologien ezarpenaren eta ustiapenaren ondorioz garraibide honek ematen dituen aukeren berraurkikuntzak gaur egun sorturiko itxaropena.

Parlamentu-talde sozialistari harrigarria iruditzen zaio Nafarroako Gobernuaren jarrera; izan ere, 2004ko martxoaz geroztik, alegia, PSOEk estatuko gobernuaren kudeaketa-lanetan PP ordeztu zuenetik, Rodríguez Zapatero jaunaren gidaritzapean dagoen nazioko gobernuaren aurkako borroka alderdizaleko tresna gisa erabili du eskaera logiko, arrazoizko eta bidezko hura, foru erkidegoa abiadura handiko trenez konektatzekoa.

Nafarroaren eta estatuaren arteko harreman instituzionalen bilakaera egokirako eta bi administrazioen arteko lankidetzarako nabarmenki kalte-

garria den egitate horri bi gorabehera gehitzen zaizkio.

Bata, Iruñetik iparralderako lotuneari eta trazadurari dagokionez estrategia aldaketa dirudiena, Sanz jaunaren gobernuetan elkarren segidan izan diren Herri Lan eta Garraio kontseilarien artean gertaturikoa.

Bigarrena, estatuko plan eta estrategiek Nafarroan abiadura handiko trena ezartzeari eman izan dioten tratamendu, garrantzi eta aintzatespen ezberdinak nazioko gobernuaren joera politikoaren arabera; jarrera hori askoz ere mesedegarriagoa da gobernuan PSOE dagoenean.

Azken batean, bai foru gobernuo kontseilariak gai honetan izandako estrategia aldaketak, bai estatuko planetan emandako garrantzi ezberdinak, bai eta foru gobernuak eta gobernu hori babesten duten parlamentu-taldeek afera hori estatuko agintariekin gatazka bilatzeko tresna gisa erabiltzeak ere, ondorio gisa ekartzen dute gai hau nagusi bilakatzea trenbide-azpiegituren arloko politika orokorrean eta bi gobernuen arteko harremanean bertan. Horrexegatik aurkeztu dut jabeldura hau.

Jabelduraren testua:

Aurretik azaldutakoetan oinarriturik, Nafarroako Gobernuo lehendakariari jabeldura aurkeztu zaio, foru gobernuak nazioko gobernuarekin trenbide-azpiegituren alorrean gauzaturiko politika orokorrari eta foru erkidegoa abiadura handiko sarea-ekin lotzeko jarduketei buruzkoa.

Iruñean, 2007ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza eta Auzitegi Nazionala premiatzen dira presoek eskubideen aurkako neurri guztien aplikazioa, bai eta dispersio politikaren eta espetxe zigorren luzapenaren aplikazioa ere geraraz ditzaten.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Espainiako Gobernuak, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza eta Auzitegi Nazionala premiatzen dira presoek eskubideen aurkako neurri guztien aplikazioa, bai eta dispersio politikaren eta espetxe zigorren luzapenaren aplikazioa ere geraraz ditzaten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioak:

Iñaki de Juana Chaos euskal preso politikoak 90 egun daramatza gose greban eta bere borondatearen kontra elikatua izaten ari da. Egoera bidegabe horrek ez du inolako justifikaziorik eta giza eskubideen aurkako eraso zuzena da.

Euskal preso hori bere garaian atxilotua, epaitua eta zigortua izan zen. Bere zigorra betea du eta, beraz, zuzenbide estatuaren printzipioei men eginez, kalean egon behar zuen aspaldi. Ezin da inolaz ere onartu bi iritzi artikulua idazteagatik bere espetxe zigorra luzatzea.

Gauza bat da pertsona baten iritzietaz zer nolako balorazioa egiten dugun, eta argi dago guk

ez ditugula konpartitzen De Juana jaunaren iritzi eta pentsamolde asko, baina horrek ezin du inondik ere justifikatu aplikatzen ari zaion zigor erantsia.

Edozein presok jarraitzen du pertsona izaten, preso egoteko egin duena egin duelarik ere. Beraz, espetxeetan dauden pertsonen beren giza eskubideen jabe izaten jarraitzen dute.

Hori dela eta, onartezina iruditzen zaigu euskal preso horrekin, zein gainerako guztiekin ere, estatu espainiarreko justizia organoek daramaten jokabide politizatua. Justiziak jardun politikotik at jardun behar du justizia bada.

Ebazpen proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Espainiako Gobernuari, Espetxe Zuzendaritzari eta Auzitegi Nazionalari presoek eskubideen kontrako neurri oro bertan behera utz dezaten, bai sakabanaketa eta baita espetxe zigorrak luzatzeko politika. Presoen oinarriko eskubideen kontrako neurriak direlako, legedia espainiarraren beraren aurkako neurriak direlako, eta, batez ere, konponbiderako bidean oztopoak jartzeko besterik ez dutelako balio.

2.- Horrekin batera, Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Espainiako Gobernuari, Espetxe Zuzendaritzari eta Auzitegi Nazionalari, giza eskubide guztien defentsa irmoa egiteko bidean behar adinako neurriak aktibatu ditzaten, eta gizatasuna gailendu dadin, baita de Juanaren auzian ere.

3.- Zentzu berean, Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Espainiako Gobernuari, Espetxe Zuzendaritzari eta Auzitegi Nazionalari Iñaki de Juan Chaos euskal preso politikoaren berehala aska dezaten, bere zigorra betea baitu eta bi iritzi artikulua idazteagatik ezin delako inoren espetxe zigorra luzatu.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta



**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dekretu berri bat egin dezan eta bertan zalantzarik gabeko moduan jaso dezan hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasle guztiak modu orekatuan banatuko direla funts publikoekin mantentzen diren ikastetxeetan.**

**ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da dekretu berri bat egin dezan eta bertan zalantzarik gabeko moduan jaso dezan hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasle guztiak modu orekatuan banatuko direla funts publikoekin mantentzen diren ikastetxeetan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Hezkuntza Departamentua Nafarroan Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa garatzeko egiten ari den araudia eztabaida sakona sorrarazten ari da herritarren artean, gure foru erkidegoko hezkuntza erkidegoaz haratago iritsi dena. Sare publikoko elkarte guztiak eta sindikatuek, LABek izan ezik, egin dituzten kritikek agerian uzten dute hezkuntzaren arloko administrazioa hartzen ari den erabakiak ez direla behar bezain adostuak hezkuntzako sektore guztiak etorkizuneko hezkuntza sisteman aintzat hartuak sentitu ahal izateko.

Hezkuntza erkidegoaren zati garrantzitsu batek uste du Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa garatzeko dekretuaren zirriborroak ez duela bermatzen ikasleen banaketa ekitatez eta orekaz egitea, eta zonifikazio proposamen berria kritikatzeko

da, ez duelakoan nor bere etxetik hurbileko ikastetxe batera joateko nahia bermatzen, baizik eta barreiatze-politika errazten duelakoan.

Eskolatze-tokia da hezkuntza erkidegoaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko gatazka-puntuetakoa bat, zirriborroak finkatu egiten baitu Eskolatze Batzorde Nagusia, ikaspostuekin eta aurrematrikulako eskaerekin zerikusia duten konuetarako organo aholku-emailea, hain zuzen ere. Halaber, aipagai dugun testuak dio toki-batzordeak eratu behar direla, herri bakoitzean sareka eta zentroka ekitatean oinarrituriko birbanaketa egitea lortzeko sortzen diren arazoak ebazte aldera. Haien zeregina, ordea, ez da urrunago iristen aholkularitza baino, ez baitaukate ahalmen bete-erazlerik. Horrela, familiei dagokien erabakia da ikastetxe baten edo beste baten aldeko hautua egitea, eta ikastetxeari dagokio hori onartzea edo ez onartzea. Kasu horretan, aurreinskripzioa ikastetxeetan egiten da.

Ikastetxea aukeratzeari dagokionez Iruña eta Iruñerria bi eragin-eremu handitan (ekialdea eta mendebaldea) erdibitzeko erabakia arbuia egin du sare publikoak, haren ustez horrela ez baita errazten familiek beren seme-alabak beren auzoan eta hautaturiko hizkuntza eremuan matrikulatzea, eta, ondorioz, ez baitu sustatzen ez gizarte-kohesioa ez eta guztientzako aukera berdintasuna ere. Orain arte, zonifikazioa mugatuagoa zen, auzoen arabera zen, eta soil-soilik barruti bakoitzeko ikastetxe publikoetan inskribatzeko balio zuen. Ikastetxe itunduentzat, zonifikazioa bestelakoa zen.

Azken ikastetxe horiek zonifikazio berean sartzeko betebeharrak, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezarritakoak, egin duena izan da bi makrobarruti sortzea, lehendik zeuden zortzi barrutiak mantendu eta ikastetxe horiek haietan sartu ordez. Hautu horrek mesede egiten die, argi eta garbi, ikastetxe itunduei, aukera ematen baitu nahi den ikastetxean matrikulatzeko, bizitxetik hurbil egon beharrik gabe. Haurrak beren auzoetan eskolatu eta, horrela, beren sozializazioa errazte aldera, guraso, irakasle eta zuzendarien elkarteek, bai eta sindikatuek ere, foru dekretua-

ren zirriborroan argitaraturiko onarpen-baremoaren aldaketa kritikatu dute.

Ikasle etorkinen eta soziokulturalki behartsu direnen gizarteratzea errazteko asmoz Hezkuntza Departamentuak ezarri dituen neurriak positiboak dira, baina bistan da ez direla behar adinakoak. Arazoari errotik heldu beharko litzaioke, eta banaketa hasiera-hasieratik ekitatez egiteko ahalegina egin beharko litzateke. Alabaina, kontuan izanik zenbait ikastetxe publikotan oso altua dela ikasle etorkinen eta/edo behartsuen ehunekoa, eta hori ez dela guztiz aldatuko datozen urteetan, egoera zuzentzeko neurriak ipini beharko lirarteke, diskriminazio positibokoak, ikasle behartsuentzat eta horrelako ikasleen ehuneko handia duten ikastetxeentzat; izan ere, Iruñean badaude etorkin-kopuru handiagoa duten auzoak, eta ez dute, kontzentrazioak saihesteko ahaleginean, zertan beren auzotik urrun matrikula egin.

Azkenik, euskarazko murgiltze-irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeen inguruko hezkuntza-erkidegoak askotan kritikatu izan du administrazio publikoak eredu hori ikasle etorkinei ezagutarazteari dagokionez agertu izan duen eraginkortasunik eza. Hori dela eta, euskarazko ikastetxeek Nafarroara iristen diren ikasle atzerritarren % 1 baizik ez dute hartzen. Ehuneko hori baxua da eta zerkusia du, batetik, bigarren hizkuntza bat ikasteko zailtasunarekin (gaztelania ez dakitenentzat) eta, halaber, gure erkidegoa elebiduna dela haiei gogorarazteko gobernuak behar adinako ahaleginik ez egitearekin. Kritikatzen da departamentuak soilik hizkuntza eredu jakin batzuei buruzko informazioa ematen diela informazio eske joaten zaizkion atzerritarrei.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Dekretu berri bat egin dezan eta bertan zalantzarik gabeko moduan jaso dezan hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasle guztiak modu orekatuan banatuko direla funts publikoekin mantentzen diren ikastetxeetan, horretarako ezarriz zenbatekoa izanen den, ikastetxe bakoitzean, horrelako ikasleen proportzioa.

2. Eskolatze batzordeak susper ditzan, funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztiek erantzun asegarria eman diezaioten beren erkidegoko (auzo, herri, barruti) eskaerari.

3. Zonifikazio berri bat egin dezan, horrela bermatzeko ikasleak eskolatzen direla bizi diren eskualdean eta aukeraturiko hizkuntza eremuan, betiere hezkuntzaren kalitatea, gizarte-kohesioa eta aukera-berdintasuna ziurtatuz.

4. Diskriminazio positiboko politika bat aplikatu dezan ikasle behartsuentzat eta horrelako ikasleen portzentaje altua duten ikastetxeentzat.

5. Azpiegiturei buruzko plan berri bat prestatu dezan, Nafarroako hezkuntza-eskariari erantzun zehatza eta egokia emateko.

6. Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko informazio-gida bat argitara dezan, informazio global eta orokorra eskainiko duena eta hezkuntza aukera guztiak (G, A eta D ereduak) eta ikastetxe-ereduak (publikoa eta itundua) jasoko dituen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 6an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahal bezain azkar has ditzan behar diren izapideak eta zuzemenak lurzoruak aprobetxamenduen truke erostearen ordezkariaren truke erosteko.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ahal bezain azkar has ditzan behar diren izapideak eta zuzemenak lurzoruak aprobetxamenduen truke erostearen ordezkariaren truke erosteko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gendulaingo hirigintza antolamendurako ideien lehiaketaren ebazpena argitaratzean sortu den egoerak gogoeta patxadatsua egitera behartzen du; alabaina, gaur egungo egoerak ez du horrelakorik ezertan ere errazten.

Eskaintzan udalez gairako proiektu sektoriala izapidetzean hasteko ezarritako epeak bete ez izana titularrekiko axolagabetasun gisa har liteke.

Gure parlamentu-taldearen iritziz, lehiaketaren helburuari eutsi dakioke, alegia, erreserbarako lurzoruak erosteari, horrela guk betidanik defendatu izan dugun lurzoruaren foru bankua handitzeko.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren izapideak eta zuzemenak ahal bezain azkar has ditzan lurzoruak aprobetxamenduen truke erostearen ordezkariaren truke erosteko.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Eleduna: Fernando M.<sup>a</sup> Puras Gil

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da moratoria bat ezar dezan Gendulaingo lurzoruak antolatzeko tresnak izapidetzean.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da moratoria bat ezar dezan Gendulaingo lurzoruak antolatzeko tresnak izapidetzean".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gendulaingo antolakuntzarako deituriko ideien lehiaketa ebatzi ondoren, iritzi orokorra da une hau ez dela egokiena udalez gaindiko plan sektorialaren izapidetzeari ekiteko.

Lurzoru horiek erostearen helburua zen horiek erreserba gisa edukitzea, baina ez lurzoruak kontseilariak argitaratu dituen baldintzetan garatzeko.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du moratoria bat ezar dezan Gendulaingo lurzoruak antolatzeko tresnak izapidetzean; gutxienez ere, harik eta hurrengo hauteskundeetatik sortzen den Nafarroako Gobernu berria gauzatu arte.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Iruñerriko Lurzoruaren Mahaia deiturikoan dauden udalekin etxebizitza arloan izandako lankidetzeta eta baterako jarduna onbiderratu eta jarrai dezan.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Eleduna: Fernando M.<sup>º</sup> Puras Gil

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Gendulain dela-eta herritarrek zenbait zerbitzu eduki ditzaten Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei edo dauzkan aurreikuspenei buruzkoa eta aurreikusi den plangintzari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egindako galdera, Gendulain dela-eta herritarrek zenbait zerbitzu eduki ditzaten Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei edo dauzkan aurreikuspenei buruzkoa eta aurreikusi den plangintzari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamen-

du eta Etxebizitza kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Osoko Bilkuran:

Zer aurreikuspen dauzka edo zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak, eta zer planifikazio aurreikusi du, nolakoa eta zenbaterainokoa, Gendulainerako dituen planen hirigintza garapeneraren hipotesia gauzatuz gero, bertan bizilekua hartzen duten herritarrek jarraian zerrendatzen dena eskuratu ahal izan dezaten?

– Hiri-garraiobide kolektiboak.

– Otiak 3 urtera bitarteko ikastetxeak, lehen eta bigarren hezkuntzakoak, batxilergokoak eta lanbide heziketakoak.

– Osasun eta laguntza zentroak.

– Kultur ekipamenduak.

– Kirol ekipamenduak.

– Merkataritza eta aisialdi guneak.

Iruñean, 2007ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

**Galdera, Jofemar, S.A. enpresaren instalazioetarako sarbideak, NA-128, Marcilla-Peralta errepidean, hobetzeko lanak egitea onartu behar ote den jakiteko.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egindako galdera, Jofemar, S.A. enpresaren instalazioetarako sarbideak, NA-128, Marcilla-Peralta errepidean, hobetzeko lanak egitea onartu behar ote den jakiteko. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren asmoa al da Martzi-llatik Azkoienetarako NA-128 errepidearen birmoldaketan sartzea Jofemar, S.A. enpresaren instalazioetarako sarbideen hobekuntza –10,900 kilometro-puntuan–, Azkoien eta Martzillako Udalek eskatu duten bezalaxe, alegia, biribilgune baten bitartez, eta ez T tankerako lotune baten bitartez, horrela sarbide horien eta, oro har, bi herri horien arteko errepidearen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko?

Iruñean, 2007ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

**Galdera, gobernuak aurkezturiko Gendulaingo hirigintza-garapena gauzatzen bada, Iruña-Logroño autobidea desbideratzeak izanen duen kostu ekonomikoari buruz eta kostu hori nork ordaindu behar duen jakiteko.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egindako galdera, gobernuak aurkezturiko Gendulaingo hirigintza-garapena gauzatzen bada, Iruña-Logroño autobidea desbideratzeak izanen duen kostu ekonomikoari buruz eta kostu hori nork ordaindu behar duen jakiteko. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zenbateko kostu ekonomikoa ekarriko du Iruña-Logroño autobideak izanen duen balizko desbideraketak, baldin eta Gendulaingo hirigintza-garapena gauzatzen bada, Nafarroako Gobernuak urtariraren 25ean emandako prentsaurrekoan adierazi bezala gauzatuz gero, eta nork ordainduko du?

Iruñean, 2007ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, txertoen egutegi ofizialean barizelaren aurkako txertoa sartzea dela-eta izandako irizpide aldaketari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, txertoen egutegi ofizialean barizelaren aurkako txertoa sartzea dela-eta izandako irizpide aldaketari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Otsailaren 2an Osasun Batzordean eginiko agerraldian, kontseilariak ez zituen erantzun galdera batzuk, txertoen egutegian txerto berriak eransteari dagokionez izandako irizpide eta jarrera aldaketarekin zerikusia zeukatenak.

Begi-bistan dagoenez, erabaki politikoak hartzeko moduko arrazoiak daudenean, arrazoi horiek arazorik gabe aipatu beharko liriateke, bai eta alde zuzenetik eman ere, erabakiak justifikatzeko; izan ere, bestelakoan zalantzari atea irekitzen zaio.

2002ko urrian El Escorialeko ituna sinatu zen, Osasun Ministerioaren eta autonomia erkidegoen artean. Itun horren bitartez, erkidego guztiak behartuta daude txerto-egutegi bakarria defendatzera, eta egutegian txerto berriak sartzean, adosturik eta irizpide teknikoekin jarraituz egiten da, lurralde arteko batzordean. Nafarroak irizpide horren arabera jokatu du 2002tik 2006ko urrira bitartean.

2005eko martxoan, Nafarroak erabaki zuen barizelaren txertoa ez ematea Nafarroako haur guztiei, eta ez zuen sartu txerto-egutegiaren barruan. Alabaina, modu harrigarrian eta gaur egun ere oraindik inolako azalpenik eman gabe, urrian irizpidea aldatu zen, eta Nafarroako Osasun kontseilaria bereizi egin zen azken lau urteotan Osasunerako Lurralde arteko Batzordeak eutsi dion ildoari, Madrilgo erkidegoa bezalaxe, zeina PPre agintepean baitago.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zer arrazoi, zer argudio dela-eta erabaki zen 2006ko urrira arte izandako jokabidea aldatzea, txerto-egutegi ofizialean barizelaren txertoa sartzeko urratsaren bitartez? Zer azterlanetan oinarriturik dago hori? Nafarroan eginiko azterlanak al dira?

2.- 2005eko martxotik 2006ko urrira bitartean barizelaren txertoari buruzko ebidentzia zientifikoa aldatu egin al da, erabaki hori hartzeko irizpide aldaketa justifikatzeko moduan?

3.- Zer iritzi dute Osasun Publikoaren Institutuko teknikariek barizelaren txerto unibertsalari buruz? Iritzi tekniko hori kontuan hartu al da?

4.- Zer irizpide tekniko eta zientifiko defendatzen du Osasun Ministerioak barizelaren txertoa txerto-egutegi unibertsalean sartzeari dagokionez, eta nola justifikatzen du?

5.- Zer prezioetan erosi du Nafarroako Gobernuak barizelaren txertoa?

6.- Txertoa Nafarroako haur guztiei emateak zer kostu izan du osotara? Halakorik aurreikusita eta jasota al dago 2007ko aurrekontuetan, ala beste osasun-beharrizan batzuei erantzuteari utziko zaio, horrela gastu horri aurre egin ahal izateko? Erantzun arrazoitua eman bedi.

Iruñean, 2007ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, jakiteko gobernuak asmoa duen N-121-A errepidea hobetzeko lanek trafikoaren gainean izanen dituzten eraginak arintzeko alternatiben plana egiteko.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko gobernuak asmoa duen N-121-A errepidea hobetzeko lanek trafikoaren gainean izanen dituzten eraginak arintzeko alternatiben plana egiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Argi dago N-121-A errepidea Gipuzkoarekiko mugarainoko zatietan hobetzeko obra irrikatuak eragina izanen dutela, egiten diren bitartean, gaur egun errepide horrek duen ibilgailu-zirkulazioan. Errepide bat hobetzeko obrak aspalditik ikusiak dira ingeniari-arazo huts batetik haratago doazen zerbait gisa. Gogoan hartu behar dira lanek gauzatzen diren bitartean errepideko zirkulazioak pairatuko dituen ondorioak.

Horregatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko ezinbestekoa iruditzen zaigu zirkulazioak jasanen dituen eraginak inprobisazioaren baitan ez uztea eta eragin horiek samurtzeko xedez lan egitea.

Begi-bistakoa badirudi ere, arazoaren nondik norakoak zehazteko lagungarri diren alderdien aipamen bat ez dago lekuz kanpo:

- Iragate hutsezko trafiko astuna, zeina A-15 autobiatik nahitaez bideratu beharko bailitzateke.

- Jatorria eta/edo helmuga aztergai dugun eskualdean duen zirkulazioa: oso zaila da horrentzat ordezko bide bat aurkitzea, baina, lanen planifikazioaren arabera, errepidea erabiltzeko orduz gain lehenetsi bat iradoki ahalko litzaioke.

- Ibilgailu arinen eta turismoen zirkulazioa: ordezko bideak baliagarri izan ahal zaizkio, hala nola Lesaka-Oiartzun, Bera-Ibardin, Bera-Lizuniaga-Sara, Doneztebe-Leitza-A15. Gauza nabaria da bide horiek zailtasunak izanen dituztela desbideratu beharreko zirkulazioa hartzeko, baina, haietan hobekuntza txikiak eginez gero, baldintzak hobetu daitezke.

Edozein kasutan ere, begi-bistakoa da ezen, iragate hutseko ibilgailu astunen zirkulazioaren kasuan izan ezik, eta baita, agian, iragate hutseko ibilgailu arinenean ere, haien zuzentzat A-15 autobiatik ederki asko erantzuten baitie ordezko bide baten premiei, gainerako kasuetan proposaturiko soluzioekin ez dela kalitate-maila bera lortzen.

Horregatik, derrigorrezkoa da obrak egiazki egokitzea, zirkulazioari eragindako kalteak arintze aldera. Nahitaezkoa da eragin horiek lehen mailako arazo gisa aintzat hartuko dituen obra-planifikazio bat egitea. Esatea zirkulazioak jasandako eraginak aintzat hartuko dituen lan-planifikazio bat egiteak lanen atzerapena ekarriko duela ez da desenkusa onargarria. Hori erantzutea sinplekeria bat da, hainbestearainokoa nola den urrundua gaur egun herri lanek egiterakoan bilatzen diren kalitate-estandarretatik.

Hori guztia dela-eta, EA parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernua premiatzen du alternatiben plan bat egin dezan N-121-A errepidea hobetzeko lanek zirkulazioaren gainean izanen dituzten eraginak arintzeko.

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik alternatiben plan bat egiteko, N-121-A errepidea hobetzeko lanek zirkulazioaren gainean izanen dituzten eraginak arintzeko?

2.- Hala balitz, plan horrek bere barrenean hartzen du, soil-soilik, lanen eraginak arintzeko moduko lan-planifikazio bat, ala, horrez gain, desbideraturiko zirkulazioa ahal den neurrian hartuko duten ordezko bideen multzo bat ere aurreikusitako?

3.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik ordezko bide gisa erabil litezkeen errepideetan hobekuntzak egiteko, haien kalitatea hobetzearren, kontuan izanik espero den zirkulazio-gorakada?

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa,  
2007ko urtarrilaren 1ekoa.**

**AKATS ZUZENKETA**

Mahaiak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa onesteko 2007ko urtarrilaren 29an hartu zuen erabakia argitaratzean akatsa izan dela antzemanda —2007ko otsailaren 2ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen—, hura zuzendu egin behar da, ondoko akats zuzenketa argitaratuz:

44. orrialdean, Nafarroako arartekoaren bulegoko administrazio kudeaketako teknikariaren

postuak ezarrita dituen hiru izartxoei (\*\*\*) buruzko azalpenean, honela dio: “(\*\*\*) *Arartekoak berariazko osagarri hau proposatzen du kontu-hartzailetzaren eginkizunak burutzeagatik*”. Horren ordez, honela behar du: “(\*\*\*) *Berariazko osagarri hau esleitzen da kontu-hartzailetzaren eginkizunak burutzeagatik*”.

Iruñean, 2007ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamendu Erregelamenduko 9.b) artikulua aldaketa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamendu Erregelamenduko 9.b) artikulua aldatzeko proposamena, arartekoak bidalitakoa ikusirik.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko azken xedapenetatik lehenak ezarritakoari jarraituz Legebiltzarreko zerbitzu juridikoei aldaketa hori dela-eta eginiko ohar-txostena kontuan harturik, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamendu Erregelamenduko 9. artikuluko b) letra aldatzea, honako testu hau izan dezan:

“b) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eginkizunak betetzea, hark eginkizunak betetzerik ez duenean edo aldi baterako kanpoan dagoenean. Halaber, arartekoak kargua uzten duenean behin-behinekoz haren ordeztaritu da, Parlamentuak hautatutako ararteko berria karguaz jabetzen den arte.

Azken kasu horretan, atxikiaren kargua hutsik baldin badago, arartekoak jardunean segituko du, titular berria karguaz jabetzen den arte.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Onetsitako aldaketak indarra hartuko du aldizkari hartan argitaratu eta biharamunean.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## **Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa hautatzeko arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 8.3 artikuluan xedatzen duenez, “Kargua hutsik delarik, Nafarroako Foru Komunitateko ararteko berri bat izendatzeko prozedura hasiko da; prozedura hori hilabete baino lehen abiarazi beharko da.”

Kontuan izanik gaur egungo arartekoa 2001eko otsailaren 22an izendatua izan zela, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hautatu ondoren, sei urteko eperako, eta beraz, agintaldi horren amaiera hurbil dagoelarik, aipaturiko foru legeko 2, 3 eta 8. artikuluetako xedapenak garatu-

ko dituzten arau batzuk onetsi beharra dago, kargu hori hautatzeko prozedura arautzeko.

Ondorioz, Erregelamenduko 37.1.9. artikulua-kin bat, hona ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa hautatzeko ondoko arauak onestea:

**1.** Nafarroako Parlamentuko lehendakariak arartekoaren kargua hutsik dagoela adierazi ondoren, arartekoaren agintaldia amaitu eta biharamunean, ararteko berria izendatzeko prozedura hasiko da, eta hautagaiak aurkezteko epea irekiko da; epe hori 2007ko martxoaren 2ko goizeko hamarretan amaituko da.

**2.** Hautagaiak aurkezteko, parlamentu-taldeek edo Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentariet idazki bat zuzenduko diote Legebiltzarreko

Mahaiari, eta hari gehituko zaizkio hautagaitzaren onarpenari buruzko adierazpena eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko Foru Legeko 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzearen froga.

3. Baldintzen betetzea honela frogatuko da:

a) Bere eskubide zibil eta politikoen gozamen osoa duela baieztatzen duen adierazpen pertsonala.

b) Hautagaia Nafarroako udalerriren batean erroldatuta egoteari buruzko ziurtagiria.

4. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaiek baldintzak betetzen ote dituzten erabakitzeari ekinen dio Mahaiak, eta ondoren, hala bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

5. Legebiltzarraren Osoko Bilkurak arartekoa hautatuko du txartel bidezko bozketa isilpekoan; txartel horietan, foru parlamentari bakoitzak idatzi

ahalko du aldarrikaturiko hautagaietako bakar baten izena.

6. Arartekoa hautatzeko, lehen bozketan erabateko gehiengoa behar izanen da. Hautagaietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, bigarren bozketa egingen da, baina parte hartuko dute soilik lehen bozketan boto gehien eskuratu dituzten bi hautagaiek. Boto kopuru handiena eskuratzen duen hautagaia hautatuko da. Hautagai bakarra dagoen kasuan, bigarren bozketa gehiengo soilaren bidez ebaziko da.

7. Aurreko arauan aipatutako gehiengoa lortuz gero, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izendatuta egonen da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

|   |   |
|---|---|
| <b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b><br><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> | <b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b><br><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b><br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Navas de Tolosa, 1<br>31002 IRUÑA |
| Urtebete ..... 45,15 euro   |   |
| Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »                               |   |
| Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »                                |   |